

**AGINDUA, 2022ko azaroaren 11koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baitira 2022rako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Euskadi Sariak.**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko irailaren 27ko Aginduaren (2022ko irailaren 30eko EHAA, 188. zk.) I. eranskineko 7. artikuluan, II. eranskineko 8. artikuluan eta III. eranskineko 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta – agindu horren bidez arautzen dira Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Euskadi Sarien 2022rako deialdiaren oinarriak –, eta horretarako izendatutako epaimahaiak emateko proposamena ezagutu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2022ko ekitaldiari dagozkion Euskal Turismoaren Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Berrikuntza turistikorako Euskadi Saria, gehienez 10 langile dituzten enpresentzat: Escuela de cocina Gastrolopiyekus.
- Berrikuntza turistikorako Euskadi Sariak, 10 langiletik gorako enpresentzat: Puente Colgante boutique hotel.
- Helmuga arduratsu eta jasangarrirako Euskadi Sariak: Arabako Errioxako ardoaren ibilbidea.
- Ibilbide profesionalaren Euskadi Sariak: Hotel María Cristina San Sebastián.

Erakunde onuradunek, 2022ko irailaren 27ko Aginduaren I. eranskinaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

2. artikulua. – Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2022ko ekitaldiari dagozkion Euskal Merkataritzaren Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Ibilbide profesionalaren Euskadi Merkataritza Saria: Joyeria Casa Munoa s.l.
- Euskal merkataritza-enpresentzako Euskadi Sariak:

1- 10 langile arteko euskal merkataritza-enpresentzako Euskadi Sariak: Tostadero Nossi be heladería

2- 10 langiletik gorako euskal merkataritza-enpresentzako Euskadi Sariak: Eroski s.coop.

- Ekintzailetzarako Euskadi Sariak: Polos locos s.l.

– Merkataritza Arloak Dinamizatzeko Euskadi Sariak: Laudioko merkatarari eta industrialari txikien elkarte (APPIL)

Era berean, epaimahaiak, ezohiko izaeraz, Los Encajeros, hijos y sucesores de Manuel Mendoza s.a.enpresari aipamen berezia ematea erabaki du 2022ko ekitaldirako bere ibilbide profesionalagatik, Gama bicicletas s.l. eta Hawaii-Gros Beach-ri Merkataritza-garapenari eta enpresa-modernizazioari eta -berrikuntzari laguntzeagatik, Princess Court, ekintzailatza-lanagatik, eta Ness by Esti García, Euskadiko merkataritza-sektorea dinamizatzen egindako ekarpen garrantzitsuagatik.



Erakunde onuradunek, 2022ko irailaren 27ko Aginduaren I. eranskinaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

3. artikulua. – Epaimahaiaren proposamena ikusita, 2022ko ekitaldiari dagozkion Euskal Kontsumoko Euskadi Sariak honako hauei ematea:

- Euskal Kontsumoko Euskadi saria 1. kategoriari: Erandioko KIUBa
- Euskal Kontsumoko Euskadi Sariak 2. kategoriari: Kooperera
- Euskal Kontsumoko Euskadi Sariak, 3. kategoria: Eroski consumer

Erakunde onuradunek, 2022ko irailaren 27ko Aginduaren I. eranskinaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, aintzatespen publikoa jasoko dute horretarako deitutako ekitaldian.

XEDAPEN BAKARRA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, honen aurka egiteko, berraztertze-errekurtsoa jar dakioko Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hileko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 11a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.